Kodea:
2026AKN20007

BETERRI BURUNTZA

Kontratazio espediente bat hasteko Txostena

Informe para iniciar un Expediente de Contratación

Kontratuaren Xedea: HAZILAN+ (Lorpen eta Osatu) programa Beterri-Buruntza eskualdean (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil), gauzatzeko eta teknikoki garatzeko zerbitzuen prestazioa, programan aurreikusitako parte-hartzaileen erakartze- eta hautaketa-lanak, orientazioa, prestakuntza, mentoringa, enpresen prospekzioa, lan-bitartekaritza, jarraipena eta justifikazio teknikoa barne.	**Objeto del Contrato:** Prestación de los servicios de ejecución y desarrollo técnico del programa HAZILAN+ (Lorpen y Osatu) en la comarca de Beterri-Buruntza (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil), incluyendo las actuaciones de captación, orientación, formación, mentoring, prospección empresarial, intermediación laboral, seguimiento y justificación técnica previstas en el programa.

Zerbitzuaren ezaugarriak:

Zerbitzuaren beharra. Horrekin bete nahi diren udal helburuak:

HAZILAN+ programaren helburua da kualifikazio ertain-altua duten langabeen enplegagarritasuna hobetzea eta laneratzea sustatzea, lan-merkatuan sartzeko edo bertara itzultzeko zailtasunak dituztenean. Horretarako, laguntza-ibilbide integrala eskaintzen du, orientazio profesionala, gaitasunen garapena, prestakuntza, mentoretza eta enpresekiko bitartekaritza uztartuz, parte-hartzaileen gaitasunak indartzeko eta lan-merkatuan sartzea errazteko.

Europako Gizarte Funtsak diruz laguntzen duen programa da. 2023ra arte, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko garapen-agentziekin elkarlanean garatu zuen GARAPEN Euskal Garapen Agentziak. Gaur egun, Beterri-Buruntza Mankomunitateak GARAPENekin sinatutako hitzarmenaren bidez jarraitzen du lankidetza-sare horretan parte hartzen.

Programa Beterri-Buruntza eskualdean aurreko edizioetan ere garatu da (2015-2023), eta balorazio ona izan du bai parte-hartzaileen bai erakunde sustatzaileen aldetik. Aurreko esperientzia horrek agerian uzten du beharrezkoa dela kualifikazioa izan arren beren

Características del servicio:

Necesidad del servicio. Fines institucionales que se pretenden cubrir:

El programa HAZILAN+ tiene como finalidad mejorar la empleabilidad y favorecer la inserción laboral de personas desempleadas con cualificación media-alta que encuentran dificultades para acceder al mercado laboral o reincorporarse a él. Para ello, ofrece un itinerario integral de acompañamiento que combina orientación profesional, desarrollo competencial, formación, mentoring e intermediación con empresas, con el objetivo de reforzar las capacidades de las personas participantes y facilitar su incorporación al mercado de trabajo.

Se trata de un programa subvencionado por el Fondo Social Europeo que, hasta 2023, fue desarrollado por la Agencia Vasca de Desarrollo (GARAPEN), en colaboración con las agencias de desarrollo local de la Comunidad Autónoma del País Vasco. En la actualidad, la Mancomunidad Beterri-Buruntza continúa vinculada a esta red de colaboración mediante el correspondiente convenio con GARAPEN.

El programa se ha desarrollado en anteriores ediciones (2015-2023) en la comarca de Beterri-Buruntza, con una valoración favorable tanto por parte de las personas participantes como de las entidades promotoras. Esta experiencia previa respalda la continuidad de iniciativas que

ESKU7dac85d1-c6a7-4f86-aedb-29d45897b232

gaitasunak indartu, ibilbide profesionala bideratu edo enplegua lortzeko aukerak hobetu behar dituzten pertsonei laguntza espezifikoa eskaintzen dieten ekimenei eustea.

Era berean, eskualdeko lan-merkatuaren datuek horrelako jarduketen egokitasuna kokatzen laguntzen dute. Eustatek 2026ko abuztuan emandako datuen arabera, eskualdeko langabezia-tasa % 6,8koa da. Langabeen zati handi batek kualifikazio-maila baxua badu ere, goi-mailako ikasketak dituen biztanleria ere esanguratsua da: % 21,3k unibertsitate-titulazioa du, eta % 15,5ek goi-mailako lanbide-heziketako titulazioa. Bestalde, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen jarduera-tasa biztanleria osoarena baino txikiagoa da.

Datu horiek, aurreko edizioetan metatutako esperientziarekin batera, enplegagarritasuna hobetzeko programa espezifikoei eustearen egokitasuna berresten dute. HAZILAN+ programak, bereziki, kualifikazio ertain-altua duten langabeei laguntza eskaintzen die beren gaitasunak indartzeko, lan-merkatuan duten posizionamendua hobetzeko eta laneratzen edo lan-merkatura itzultzen laguntzeko.

Programa behar bezala garatzeko, hainbat jarduketa koordinatu egin behar dira, besteak beste: parte-hartzaileak erakartzea eta hautatzea; prestakuntza-ekintzak diseinatzea eta ematea; banakako orientazio- eta mentoretza-prozesuak garatzea; enpresen prospekzioa eta haiekiko bitartekaritza egitea; Lanbidek horretarako gaitutako aplikazioak kudeatzea; eta programaren jarraipena zein justifikazio teknikoa egiteko beharrezko dokumentazioa prestatzea. Jarduketa horiek gauzatzeko, ezagutza tekniko espezifikoak eta Lanbidek finantzatutako enplegu-programak garatzen eta kudeatzen izandako esperientzia behar dira.

proporcionan un acompañamiento específico a personas que, pese a disponer de cualificación, necesitan reforzar sus competencias, orientar su trayectoria profesional o mejorar sus oportunidades de acceso al empleo.

Asimismo, los datos del mercado laboral comarcal permiten contextualizar la pertinencia de este tipo de actuaciones. Según los datos de Eustat correspondientes a agosto de 2026, la tasa de paro de la comarca se sitúa en el 6,8 %. Aunque una parte importante de las personas desempleadas presenta niveles de cualificación bajos, existe también una presencia significativa de población con estudios superiores: el 21,3 % cuenta con titulación universitaria y el 15,5 % con formación profesional de grado superior. Por otra parte, la tasa de actividad de la población joven de entre 16 y 24 años es inferior a la del conjunto de la población.

Estos datos, junto con la experiencia acumulada en anteriores ediciones, respaldan la pertinencia de mantener programas específicos de mejora de la empleabilidad. En particular, HAZILAN+ permite ofrecer a las personas desempleadas con cualificación media-alta un acompañamiento orientado a reforzar sus competencias, mejorar su posicionamiento profesional y facilitar su inserción o reincorporación al mercado laboral.

Para el adecuado desarrollo del programa es necesario ejecutar de manera coordinada diversas actuaciones, entre las que se incluyen la captación y selección de participantes, el diseño y la impartición de acciones formativas, los procesos de orientación y mentoring individualizado, la prospección e intermediación con empresas, la gestión de las aplicaciones habilitadas por Lanbide y la elaboración de la documentación necesaria para el seguimiento y la justificación técnica del programa. La ejecución de estas actuaciones requiere conocimientos técnicos específicos y experiencia en el desarrollo y la gestión de programas de empleo financiados por Lanbide.

ESKU7dac85d1-c6a7-4f86-aedb-29d45897b232

Kontratazio espediente bat hasteko Txostena

Informe para iniciar un Expediente de Contratación

2024an, Beterri-Buruntza Mankomunitateak HAZILAN+ programa gauzatzeko beharrezko zerbitzuak kontratatzeko lizitazioa egin zuen, bi urteko iraupenarekin. Garai hartan, Mankomunitatea sortu berria zenez, kontratuaren iraupena bi urtera mugatzea egokitzat jo zen, berezko zerbitzuak eta baliabideak pixkanaka handitzeko eta ordura arte kanpo-kontratazioaren bidez ematen ziren zenbait eginkizun zuzenean bere gain hartzeko beharrezko gaitasunak garatzeko aukera mantentzeko.

En 2024, la Mancomunidad Beterri-Buruntza licitó la prestación de los servicios necesarios para la ejecución de HAZILAN+ por un periodo de dos años. En aquel momento, dada la reciente constitución de la Mancomunidad, se consideró conveniente limitar la duración de la contratación a dos años por la ampliación progresivamente los servicios y recursos propios y el desarrollo de las capacidades necesarias para asumir directamente determinadas funciones que hasta entonces se prestaban mediante contratación externa.

Aurreikuspen hori lotuta zegoen, halaber, orientazio profesionaleko zerbitzua Mankomunitatearen egituran pixkanaka txertatzeko asmoarekin. Horrela, zerbitzu horren baliabideek eta gaitasunek enpleguarloko jarduketen kudeaketa integratuagoa ahalbidetu zezaketen, eta, hala bazegokion, HAZILAN+ programaren barruan garatutako zenbait eginkizun bere gain hartzea. Programa zuzenean kudeatzeko aukerak kostuak gauzatzeko eta justifikatzeko beste eredu bat aztertzea ere bazekarren, parte-hartzaileei emandako arreta-orduetan oinarritua, BECU sistemaren bidez, ordura arteko kanpo-prestazioaren ereduaren aldean. Testuinguru horretan, bi urteko kontratazioa egitea erabaki zen, epe hori igarotakoan kudeaketa-eredua egokitzeko aukera aztertzeko, Mankomunitatearen berezko zerbitzu eta baliabideen bilakaeraren arabera.

Esta previsión estaba relacionada, asimismo, con la voluntad de incorporar progresivamente a la estructura de la Mancomunidad el servicio de orientación profesional, de manera que sus recursos y capacidades pudieran contribuir a una gestión más integrada de las actuaciones de empleo y permitir, en su caso, asumir parte de las funciones desarrolladas en el marco de HAZILAN+. La posible gestión directa del programa implicaba también valorar un modelo de ejecución y justificación de los costes basado en las horas de atención a las personas participantes, mediante el sistema BECU, frente al modelo de prestación externalizada existente. En este contexto, se optó por una contratación de dos años que permitiera adaptar el modelo de gestión una vez transcurrido dicho periodo, en función de la evolución de los servicios y recursos propios de la Mancomunidad.

Hala ere, epe horretan ezin izan da hasieran aurreikusitako berezko baliabideen eta zerbitzuen hazkundea gauzatu, ezta orientazio-jarduketak aurreikusitako moduan txertatu ere. Horri gehitu behar zaio Enpleguaren eta Tokiko Garapenaren Plana egiteko atzerapena, Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legeak ezarritako betebeharren esparruan.

Sin embargo, durante este periodo no ha sido posible materializar la ampliación de los recursos y servicios propios prevista inicialmente ni avanzar en la integración de las actuaciones de orientación en los términos contemplados. A ello se suma el retraso en la elaboración del Plan de Empleo y Desarrollo Local, en el marco de las obligaciones establecidas por la Ley 15/2023, de 21 de diciembre, Vasca de Empleo.

Plan hori egitea garrantzitsua da lurraldearen

La elaboración de este plan resulta relevante para

ESKU7dac85d1-c6a7-4f86-aedb-29d45897b232

beharrak zehazteko eta Mankomunitateak enpleguaren eta tokiko garapenaren arloan garatu beharreko jarduera-ildoak finkatzeko. Planaren atzerapenak zerbitzuen plangintza baldintzatu du, eta zaildu egiten du zehaztea zer eginkizun har daitezkeen zuzenean bere gain, zer baliabide beharko diren eta nola antolatu beharko den horien prestazioa etorkizunean. Prozesua amaitu eta antolaketa-mailako ondorioak zehaztu arte, ezin da behar besteko ziurtasunez definitu HAZILAN+ programaren kanpo-prestazioa ordezkatuko duen barne-kudeaketako eredurik. Horrenbestez, egungo egoeran beharrezkoa da programa bermatuko duen erakunde espezializatu bat kontratatzea.

Antolaketa-arrazoi horiei prestakuntza-ekintzak emateko beharrezkoak diren akreditazioen eta baimenen baldintzak gehitu behar zaizkie. Baldintza eta berrikuspen-prozesu horiek kontuan hartu behar dira zerbitzuaren prestazioa planifikatzean. Testuinguru horretan, kontratuaren iraupenak aurreikusitako prestakuntza ematea bermatu behar du, eta, aldi berean, arau-aldaketei edo eskatutako baldintzen aldaketei egokitzeko gaitasuna mantendu. Horregatik, komeni da kontratuaren iraupena baldintza horiek eta Mankomunitatearen berezko zerbitzuen eta baliabideen plangintza kontuan hartuta zehaztea.

Gaur egun, Beterri-Buruntza Mankomunitateak ez ditu HAZILAN+ programa osorik bere baliabide propioekin gauzatzeko beharrezko giza baliabideak eta bitarteko teknikoak. Mankomunitatearen enplegu eta tokiko garapen arloko langileek dagoeneko esleituta dituzte beren ohiko eginkizunak eta indarrean dauden programen kudeaketa, eta ez dute programa honen exekuzio integrala bere gain hartzeko behar den dedikazio, espezializazio eta gaitasun operatiborik. Era berean, programaren barruan aurreikusitako

definir las necesidades del territorio y concretar las líneas de actuación de la Mancomunidad en materia de empleo y desarrollo local. Su retraso ha condicionado la planificación de los servicios y dificulta determinar qué funciones podrán asumirse directamente, qué recursos serán necesarios y cómo deberá organizarse su prestación en el futuro. Hasta que no se complete este proceso y se concreten sus implicaciones organizativas, no es posible definir con suficiente certeza un modelo de gestión interna que permita sustituir la prestación externalizada de HAZILAN+. Por ello, en las actuales circunstancias se mantiene la necesidad de contratar una entidad especializada que garantice la ejecución del programa.

A estas circunstancias organizativas se añaden los condicionantes derivados de las acreditaciones y autorizaciones necesarias para impartir las acciones formativas incluidas en el programa, cuyos requisitos y procesos de revisión deben tenerse en cuenta al planificar la prestación del servicio. En este contexto, la duración de la contratación debe permitir garantizar la impartición de la formación prevista y, al mismo tiempo, mantener la capacidad de adaptación ante posibles cambios normativos o modificaciones en los requisitos exigibles. Por ello, resulta conveniente que la duración del contrato tenga en cuenta estos condicionantes, junto con la planificación de los servicios y recursos propios de la Mancomunidad.

Actualmente, la Mancomunidad Beterri-Buruntza no dispone de los medios personales y técnicos necesarios para ejecutar íntegramente el programa HAZILAN+ con recursos propios. El personal adscrito al área de empleo y desarrollo local tiene ya asignadas las funciones ordinarias y la gestión de los programas actualmente en ejecución, sin que disponga de la dedicación, especialización y capacidad operativa necesarias para asumir la ejecución integral del programa. Asimismo, la impartición de las acciones formativas previstas exige acreditaciones y

ESKU7dac85d1-c6a7-4f86-aedb-29d45897b232

prestakuntza-ekintzak emateko beharrezkoak diren akreditazioak eta baliabide espezifikoak behar dira. Horrenbestez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 116.4.f) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, beharrezkoa da zerbitzua kanpoko erakunde espezializatu baten bidez kontratatzea.

recursos específicos de los que la Mancomunidad no dispone. En consecuencia, de conformidad con lo previsto en el artículo 116.4.f) de la LCSP, resulta necesario acudir a la contratación de una entidad especializada externa.

Kontratua ez da lotetan banatzen, kontratuaren xede diren prestazio guztiak elkarren artean estuki lotuta daudelako eta koordinazio tekniko bakarra behar dutelako. Parte-hartzaileen erakartze- eta hautaketa-lanek, orientazioak, mentoringak, prestakuntzak, enpresen prospekzioak, lan-bitartekaritzak, jarraipenak eta justifikazio teknikoak programa bakarra osatzen dute, eta horien zatiketak koordinazio-arazoak eragin ditzake, programaren koherentzia eta helburuen lorpena zailduz. Hori dela eta, egokiagoa eta eraginkorragoa da jarduketa guztiak kontratu bakar batean integratzea.

No procede la división del contrato en lotes, al encontrarse todas las prestaciones estrechamente vinculadas entre sí y requerir una dirección y coordinación técnica única. Las actuaciones de captación y selección de participantes, orientación, mentoring, formación, prospección empresarial, intermediación laboral, seguimiento y justificación técnica forman parte de un único programa integrado, cuya fragmentación podría generar problemas de coordinación y afectar negativamente a la coherencia y consecución de los objetivos previstos. Por ello, resulta más adecuado y eficiente licitar dichas prestaciones mediante un único contrato.

Izan ere, 2024ko kontratazioaren eta oraingoaren artean aurreikusitako prestakuntza-espezialitatea aldatu da. Aurreko lizitazioan, Enplegurako Lanbide Heziketako Prestakuntzako Irakaslearen profesionaltasun-ziurtagiria aurreikusi zen; oraingo kontratazioan, berriz, Zuzendaritzako Laguntzailearen profesionaltasun-ziurtagiria ematea aurreikusten da. Aldaketa hori Lanbide Heziketaren esparruaren bilakaerari zor zaio, eta agerian uzten du akreditazio-beharrak eta prestakuntza-eskaintza kontratazio-aldi batetik bestera alda daitezkeela. Horregatik, beharrezkoa da zerbitzuaren plangintzan egokitzeko tartea izatea.

De hecho, entre la contratación de 2024 y la que ahora se plantea se ha producido un cambio en la especialidad formativa prevista. En la licitación anterior se contempló el certificado de profesionalidad de Docencia de la Formación Profesional para el Empleo, mientras que en la nueva contratación se prevé impartir el certificado profesional de Asistencia a la Dirección. Este cambio responde a la evolución del marco de la Formación Profesional y pone de manifiesto que las necesidades de acreditación y la oferta formativa pueden variar entre periodos de contratación, por lo que resulta necesario mantener un margen de adaptación en la planificación del servicio.

Horregatik guztiagatik, beharrezkotzat jotzen da erakunde espezializatu baten zerbitzuak berriro kontratatzea, HAZILAN+ programa behar bezala gauzatuko dela, haren helburuak beteko direla eta finantzaketatik eratorritako betebeharrak beteko direla bermatzeko. Kontratu berriaren

Por todo ello, se considera necesario contratar nuevamente los servicios de una entidad especializada para garantizar la adecuada ejecución del programa HAZILAN+, el cumplimiento de sus objetivos y las obligaciones derivadas de su financiación. La definición de la

ESKU7dac85d1-c6a7-4f86-aedb-29d45897b232

iraupena zehaztean, kontuan hartu beharko dira bai Mankomunitatearen antolaketaren eta berezko baliabideen bilakaera, bai prestakuntza-ekintzen akreditazio-baldintzak eta horien jarraipenari buruz dagoen ziurgabetasuna. Proposatutako kontratazioa egokia eta proportzionatua da identifikatutako behar publikoarekiko, eta baliabide publikoen erabilera eraginkorra bermatzen du.

duración de la nueva contratación deberá tener en cuenta tanto la evolución de la organización y los recursos propios de la Mancomunidad como los requisitos de acreditación de las acciones formativas y la incertidumbre existente respecto a su continuidad. La contratación propuesta resulta adecuada y proporcionada a la necesidad pública identificada y garantiza una utilización eficiente de los recursos públicos.

Lizitazio prezioa:
100.000€ + **0€** BEZ.

Precio de licitación:
100.000€ + 0€ de IVA.

Aurrekontu diru-izendapena:
Izapidetze aurreratua. Hurrengo ekitaldietan kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da..

Consignación presupuestaria:
Tramitación anticipada. Queda condicionado a que exista crédito adecuado y suficiente en los ejercicios siguientes.

Hernanin, 2026ko urriaren 23an.

Hernani, a 23 de octubre de 2026.

EKS | CSV: ESKU7dac85d1-c6a7-4f86-aedb-29d45897b232

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://erakunde.egoitza.gipuzkoa.eus?De=89310

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://erakunde.egoitza.gipuzkoa.eus?De=89310